



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

Francisco Michelena Celayeta.  
Imanol Baleztena Elizalde.  
Leire Bazterrika Loiarde.

2018ko uztailearen 16an, 08:00etan, Zubietako Herriko Etxean elkartzen dira ohiko biltzarrean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel Jose Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

### **1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONETSI.**

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 3 bilkuretako aktei. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartzen dira aktak.

### **2. AIELETAKO OIHAN-APROBETXAMENDUA.**

Udalbatzak, behar bezala baimendurik, aho batez erabakitzen du salgai jartzea, gutun-azal itxiaren bidezko enkante irekian, ondoko oihan aprobetxamendua: lote bakarra, *Aieleta*; 357 haritz amerikar, larizio, douglas, alertze eta Lawson altzifre, 349,40 metro kubiko zur eta 182,17 metro kubiko enbor txiki/egur egiten eta 12.550,97 euro balio dutenak, BEZa kanpo. Enkantea arautzeko baldintzen orria ere onetsi da.

### **3. ESKABIDEAK.**

1. Aho batez onesten dira bestetan salmenta postuak jartzeko baldintzak:
  - Baimena eskatu eta eskuratu behar da aurretik eta 40 euro ordaindu.
  - Abuztuaren 15a izango da postua jarri ahalko den lehendabiziko eguna.
  - Postuaren luzaera 6 metrokoa izango da gehienez.
  - Udal ordezkariak erabakiko dute postu bakoitzaren kokapena.
  - Debekatuta dago petardoak saltzea.

2. L.S.B.k kexa aurkeztu zuen idatziz, *Arrosea* ondoan dagoen auzo konpostagunean ulitxak, usain txarra eta harrak zeudelako. Malerrekako Mankomunitatea izanik gaiak arduratzen dena, kexa jakinarazi zitzaion, teknikaria ikustera etorri zen eta txostena bidali zuen. Txostenaren arabera, konpostagunea egoera onean dago, kalterik ez eragiteko moduan. Aho batez erabakitzen da txostenaren kopia bidaltzea S. jaunari.

### **4. ALKATETZAREN EBAZPENAK.**

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza: 2018/26tik 2018/45era.



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

## **5. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.**

1. Jarraian, agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Nafarroako Gobernura bidali diren baso aprobetxamenduko baimen luzapen eskaerak —J.L. eta B.B.renak—; Nafarroako Gobernura bidali diren baso aprobetxamenduko baimen eskaerak —I.G., C.M., J.M.T., M.T., A.S. eta F.G.renak—; Nafarroako Gobernuak eman dituen baso aprobetxamenduko baimenak —J.L. (2), S.I., L.J., C.M. eta J. M.T.ri—; Kantauriko Ur-Konfederazioak emandako Ebazpena, 2018ko ekainaren 15ekoa, M.C.M.ri baimena eman ziona baso aprobetxamendua ateratzeko; Nafar-Lansareko zuzendari kudeatzailearen 1100/2018 eta 1102/2018 Ebazpenak, langileak kontratatzeko diru-laguntzak onesten dituztenak; Osasunbideko zuzendari kudeatzailearen 620/2018 Ebazpena, mediku kontsultan hobekuntzak egiteko diru-laguntza ukatzen duena; Cederna Garalur Elkartearen 2018/7 organo erabakitzailearen 1 Ebazpena, Errotarako eskatutako diru-laguntza ukatzen duena; Nafarroako Administrazio Auzitegaren Ebazpena, 17-02358 zenbakiko gora jotzeko errekurtsioa gaitzesi duena; Zubietako eta Iturengo Udalen Elkartzeko agiriak; Doneztebe-Santesteban, Elgorriaga, Ituren eta Zubietako Administrazio Zerbitzuen Elkartzeko agiriak; Ehiza Mankomunitateko agiriak; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisien emaitzak; uraren goi horniduran egin beharreko hobekuntzak; Nafarroa Explora Sarea.

2. Alkateak hitza hartu eta gai hauek azaldu ditu:

- Agenda 21: ariketa fisikoa egiteko tresnak jartzeko diru-laguntza eskatu da.
- Babes ofizialeko etxebizitzak: kontuak onetsi ziren; Tokiko Maparen eragina aztertzen ari dira.
- Mankomunitateko kontuak.
- Goienerren proposamena: argindarraren fakturak aztertuko dira.
- Zentraleko bidearen konponketa.

## **6. GALDE-ESKEAK.**

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 09:15ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.